



EUSKERAKO IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

2024

Aiako Udalaren helburua da neurri egokiak hartzea euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehitu dadin. Horretarako, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, elebidunen kopurua handitzea eta hobetzea, euskara ez dakitenek ikasteko bideak jartzea, eta dakitenek alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Aiako Udalari oso garrantzitsua iruditzen zaio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragitea. Bestalde, araututako ikastaroetatik aparte, euskara hutsean ikastaroak egiteak ere (UEU) garrantzi berezia hartzen du hizkuntzaren ikuspuntutik. Horrexegatik, hain zuzen ere, aurrekontu-partida bat ezarri du 2023-2024 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara eta UEUko udako ikastaroetara doazen Aiako biztanleei laguntzak emateko.

1.- HELBURUA.

Deialdiaren xedea ondorengoa da: 2023-2024 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten Aiar orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Era berean, UEU-ko udako ikastaroak egin dituzten herritarrei ere matrikula gastuetarako dirulaguntza emango zaie.

2.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA.

Laguntza hauek norgehiagoka erregimenean emango dira.

3.- ONURADUNAK.

Onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskalduntze edo alfabetatze ikastaroren bat edo UEUko udako euskarazko ikastaroren bat egitea 2023/2024 ikasturtean.
- Dirulaguntzaren xede den ikastaroak irauten duen bitartean Aiako Udalerrian erroldatuta egotea.
- Ikastaroan eskainitako orduen %80a hartzea gutxienez. Hartutako orduen ehuneko kalkulatzen, ikasleak ikastaroa noiz hasi duen hartuko da kontutan.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo egoera batean dagoenak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2025 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

4.- ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

Inprimakiak, A eta B ereduak, osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira Udaletxeko bulegoetan goizeko 8etatik eguerdiko 3ak bitartean.

Eskabidearekin batera, bertan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Edonola ere, dirulaguntzaren eskaera, ikastaroa bukatu ondoren egingo du ikasleak, 2024ko abuztuaren 12tik irailaren 30a bitartean.

5.- PARTIDA ZENBAKIA.

Udal honek 2024ko aurrekontuetan laguntza hauetarako diru partida bat jasota dauka: 421.335.00.02.

6.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Eskaera inprimakiarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- a) Eskatzailearen NAN fotokopia.
- b) Matrikularen ordainagiria.
- c) Euskaltegia edota UEU-ren bertaratze-ziurtagiria, eskatzailearen asistentzia (ehunekotan), ikastaroaren ordu teorikoak eta ikasleak gainditutako urrats-kopurua adieraziko dituenak.
- d) Langabeen kasuan, "Lan bizitzaren ziurtagiria" (ikasturteak irauten duen bitartean LANBIDEn izena emanda egon beharko du eskatzaileak).
- e) Xede bererako eskatutako edo jasotako beste dirulaguntza batzuei buruzko eta 3. artikuluan zehazten den dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen inguruko erantzukizunpeko aitorpena (B eranskina).

- f) Udal mailako zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen erantzunkizunpeko adierazpena (B eranskina). Udalak dirulaguntzaren ordainketa egingo duen data bitartean egiaztatuko da.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

7.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideak hartuko dira kontuan, beti ere d) atalean ezarritako mugen arabera:

- a) Euskalduntze eta alfabetatze (C1-C2) ikastaroak:
 - a.1. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia txartela duen ikasleak, ordaindutako matrikularen %100-a izango du laguntza.
 - a.2. Gainerakoak, ikasleak ordaindutako matrikularen %75a izango dute laguntza.
- b) Udan egindako Euskara ikastaroak eta UEU-koak:
 - a.1. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia txartela duen ikasleak, ordaindutako matrikularen %75eko laguntza izando.
 - a.2. Gainerakoak: ikasleak ordaindutako matrikularen %50eko laguntza izango dute.
- c) Eskatzaile bakoitzak ikastaro mota bat baino gehiagorako dirulaguntza eska dezake, baina urteko (deialdiko) gehienez ere 500 eurotako laguntza jaso ahal izando du eta 700 eurotako egindako ikastaroren bat barnetegian izan bada.

8.- BATERAGARRITASUNA.

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jasotako beste edozeinekin, baldin eta gain-finantziaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

Aiako Udalak eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publiko batzuekin elkartzeko, eta beti deialdi honen xedeko gaiaren barruan.

2023/2024 ikasturtean, HABE-ren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek, HABEK 2024. urtean euskara ikasleentzako egiten duen dirulaguntzaterako deialdian parte hartu beharko dute. Aiako Udalaren laguntza HABE-k emandakoaren osagarria izango da.

9.- EBAZPENA ETA JAKINERAZPENA.

Prozeduraren ebazpenak, administrazio bidea amaituko du, eta ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia Udaleko web orrian argitaratzen denetik hasita.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakineraziko zaie, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, eta lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenen arabera tramitatuko da; beti ere, emandako dirulaguntzak Aiako Udalaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

Ebazpena Alkatetzari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzekin bat etorritik.

10.- ERREKURTSOAK.

Interesdunek, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik hautazko berraztertze-errekurtsua aurkezteko, oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze-errekurtsuaren berariazko ebazpena eman arte edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daitezke.